

Nafarkaria

Nafarroako Gehigarri Berezia / Ostirala, 1992ko urtarrilak 31

Ihauteri garaia

Zubian barne



BINGEN AMADOZ



Joan den asteburuan hasi dira ihauteriak Nafarroako hainbat herritan.

JOXE

Baru barrutik sortzen dira, herri izkutueneren zokoetatik, eta baru barruraino heltzen zaizkigu, horiek bait dira oroipenak, go-goak, doinu ezezagun baino ezagunak, inpresio ehaztubaikoak, galdutako zapoak, lurrarekin uzta-riak, hitz bitan. Esanahia agertarazten eta laburbiltzen saiatzea alferrikakoa da, azken finean, beren mo-zorro, momotxorro eta kantuetan dena batzen eta nahasten dutelako. Aspaldiko ohiturak, kantuak, izaerak, egungo garaian agerian. Behialako sentsazioak gure baitan, ondoan. Ihauterien garaia zabaldu da Nafarroa osora. Almandotzen hasi eta Sunbilla, Leitzan, Ituren, Zubietan... Toki orotan birsortuko dira mamu eta sinimes zaharrak, batzuetan gogoratzeko besterik ez, besteetan berriro ere uxatzeko. Ihauterietan batera aterako dira ere egungo zaugarriak, eta nahaspilatik ezagutuko dugu hobeki-ego gure herria, gure izaera. Izan ere, memoria apur bat astinduz bizirik gaudela erakusten bait dugu.

Errespetu edo begirunea eta errespetu-ezaren gainera mintzatzera beharturik nago. Hain zuzen batzuren gure hizkuntza eta iritziek jaso behar izaten duten errespeto-faltak sakonki mintzen nau eta. Edozein unetan gurea zapaltzeko prest daudenekiko sekulako begirunea erakusten dugu sarri askotan. Eta loreak apain eta usaingarri, politik badira ere, txerriaren askan patata ustelaren modukoak diren bezalaxe, ez dakit ez ote dugun batzueganako sobera errespetu izaten. Euskaraz, publikoki esaten den guztiak itzulpena behar du. Zertarako eta gure artean bizi diren erdaldunak, zoritxarrez hainbatetan sekulan gure kulturaren alde inungo interesik erakutsiko ez dutenak, errespetu handiz tratatzeko. Alderantzizkoa eskatzerik ez da, ordea. Begiruneak, nunbait, ez du joan-etorriaren txartelik hartzen. Era berean gabiltza eguneroko hizkeran erabiltzen den terminologia dela eta. Tentsiorik ez sortzeko hizkuntza aseptikoa, terminologia ahalik eta neutroena erabiltzen saiatu ohi gara, eta gutxienez aurrean daukagunaren ideologia eta pentsamoldea hainbat harturik, hiztegiak eskaintzen dituen aukeren artean egokienaz baliatzea estimatzen dugu zuhurren, probokazioetan erori nahi ez badugu.

Jakin behar da horregatik zer daukagun oinen azpian, Javier Zubiaur kultur-zuzendari orokor jauna, tokitik kanpoko argelkeririk ez esateko.

Nik ez dakit zurea begirune falta edo ta ez jakituri-ausarta den, bainan, egitan, zaila da hain denbora gutxitan horrenbeste hanka sartze egitea. Garbi da ez duzula bereizten zer den bertsolari eta zer bertsozale, baina Txirrita, Amuriza eta Mattin bezalako bertsolariak eman dituzten lurraldeetan Nafarroan plaza-ratu berria daukagun liburu guztiz txalogarriaren bezalakorik kaleratu den noizpait edo ia Gipuzkoan Nafarroan baino bertsolari gutxiago dagoen galde-tzea ere...

Zurekin izandako begirune osoari bizkarra emanez, gainera, aurreko jende gehienarentzat mingarria den terminologia erabiltzen duzu. Ez al zinen ohartu eskaldunen aitzinean zinela eta guzti horiek ere euskal 'probintzi' batekoak zirela, Nafarroakoak hain zuzen?

Nunbait ez zen aski izan hori Zubiaur jaunarentzat eta alde zuretik zer gerta zitekeen jakinda ere, Donostiara joan eta gure hizkuntzaren santutegi den bertsolaritzaren munduan sartu eta erdaraz luze aritzera ausartzen da. Gero, gerokoak, jakina!

Agian borondate ona duzu eta zure jokabidea ez jakinak duen ausardiaren emaitza besterik ez da. Nahiago nuke hori pentsatzea eta ez probokatzaila gisan zabilazala. Uste dut, dena den, zure ingurua ezagutzeko ordua iritsi zaizula.

Barnean

XORROXIN IRRATIA



Baztango Udalaren lizentziaren zain daude irratian/VII

NEKAZARITZA



Nafarroan badago gorria eta piperra baino gehiago/IV-V

Gure Aukerak

ERAKUSKETAK



Robert Capa argazkilaria hungariarraren erakusketa ikusgai dago gaurdanik Iruñeko Udalaren Hiritar Eragintza saileko erakustokian, Zapateria kalean. Inoiz izandako argazkilaririk on eta famatuena da, errepublikar aldeko miliziano bati ateratakoa. Horretaz gainera, II Mundu Gerran argazkilaria lanetan aritu zen, eta Indochinan zegoela, 1954ean, vietminh mina bat zapaldu eta bertan hil zen, berrogei urte zituela.

Iñigo Arozenaren pinturak daude ikusgai urtarrilaren 24etik otsailaren 9a arte Iruñeko Lankide Aurrezkiaren erakusketa aretoan.

MINTZALDIAK



Agoizko Bilaketa kultur elkarteak antolatzen duen poema eta narratiba lehiaketan urtetan zehar sarituak izan diren poemak irakurriko dituzte otsailaren 6an Aurrezki Kutxa Muzizipalaren Hitzaldi Aretoan. Ordua: arratsaldeko zortzietatik aurrera.

'Osasuna eta gastronomia' izenburuarekin mintzaldi ziklo baten hasiera izanen da heldu den asteartean, otsailak 4, arratsaldeko zortzietan Nafarroako Museoaren mintzaldi aretoan. Zikloa Nafar Ateneoak antolatu du, eta hiru egunen zehar gaiarekin lotutako gai ezberdinak jorratuko dira.

ZINEMA



'Mas alla del Arco Iris' ('Ortzadarretik haruntzago') filma dago ikusgai Iruñeko Golem zinema aretoan. Sitgeseko zinemaldiaren zerbait sari poltsikoan, medium baten esperientziak laburbiltzen ditu maisuki, tentsio dextente duen filme batean. Bertan ere 'El Rey Pescador' ('Errege arrantzalea') filma dago

Elurra oraindik Erronkari

Elurra etorri eta joan egin zen Nafarroako toki askotan, batzuen gozamenarako eta besteen penarako. Zenbait lekutan, baina, oraindik badago, eta Erronkari aldea, Izaba inguruan, elurretan aritzeko parada oraindik ez da galdu, horrek dakarren guztiarekin. Fondoko eskia, ibilaldiak, trineoak, mendi zeharkaldiak, garaia aproposa da horretarako, eta baita ibar izkutuen eta baztertuena ere.

Burgi da lehendabiziko herria, hegoaldeko helduz gero, eta ondoren, Bidankoze eta Garde topatzen du bisitariak. Zenbat eta iparralderago, orduan eta menditsuago egiten da ibarra, eta benetan herri hauen aberastasuna inguruan dago, bertan aurki baitaitezke Euskal Herriko baso eta oihan aipagarrienak eta aberatsenak.

Espezien artean aipatzekoak dira pinu beltza, Euskal Herri osoan aurki daitezkeen ale bakarrekin, eta animalietan, ugatza, basoilarra, sarrioa, eta hartz bakan batzuk, noiz edo noiz aldameneko ibarretik etortzen direnak.

Kirol eta asialdiatarako leku franko, Belagoako ibarra topagune aparta bihurtu da mendizale guztiendako.



Orobat, Mintxateko arroila aipagarria da bere inguru naturalistiko dela medio, eta baita Belabarzeko ibarra ere, Zurita eta Ansoko ibarretara joateko.

Inguru honetan daude euskal gailurrik aipagarrienak, urtean zehar, udaberri, uda, eta udazken, han eta

hemengo mendizaleen helburu direnak, eta negu gorrian, elurrez jantzita, are ederrago agertzen direnak: Hiru Erregeen Mahaia, Auñamendi, Budogüia, Lakartxela, Txamantxoia... eta Zuberoarekin muga egiten duten inguru guztiak dira zoragarriak.

toan. Sitgeseko zinemaldiaren zerbait sari poltsikoan, medium baten esperientziak laburbiltzen ditu maisuki, tentsio dextente duen filme batean. Bertan ere 'El Rey Pescador' ('Errege arrantzalea') filma dago

ikusgai, tragedia pertsonal batean oinarritutakoa. Filmea ederki egingakoa, farra zein tristezia eta baita malkoak ere nahasten dira pelikula osoan zehar. Historia hunkigarri batekin topo egiteko parada ederra.

Victor Abendaño 'Espeleologia Venezuelako ohianean' izenburuarekin diapositiba emanaldia eskainiko du gaur urtarrilak 31 arratsaldeko zortzietan Club Deportivo Navarra taldeak Jarauta 78an duen aretoan.

ERRAN DUTE

Betiko eskuinak ez zeukan sentsibilitaterik gizartearen beharren aurrean».

Maria Teresa Gracia
Iruñeko zinegotzia

«Nere izendapena ez zen konpentsazio bat izan autobidea defendatu izateagatik».

Antonio Aragon
Ebroko Konfederazioaren presidentea

«Maila mantentzeaz bakarrik hitz egin behar dugu orain».

Pedro Mari Zabalza
Osasunako entrenatzailea

«Setien ez da sekulan okertzen. Buru kartesianoa dauka».

Jesus Mauleon
Iruñeko Artzapezpikuaren idazkaria

ASTEKO PERTSONAIAK

Alfonso del Val



Ingurugiroan aditua

Joan den astean aurkeztu zuen Iruñean birziklapenerako liburua, Lorearen proiektuaren inguruan idatzita. Bertan azkenean ezkututa eta ahaztuta gelditu zen proiektu hori goraiatzeko duen Del Valek, eta Gongorako zentruaren izpiritu eta asmoak kritikatzeko ditu. Prentsaurrekoan adierazi zuenez, zabortegeien guztiz kontrako iritzia du «ekologikoaren kontrakoa bait da oraindik konponbide errazenera jotzea. Etikaren aldetik, igualtsu, energia eta materia botatzeaz gainera, lana ere alferrik gastatzen delako, eta poluzioa eta usain txarrak produzitzen direlako». Gongorako zentruaren inguruan den adostasuna lortu beharra zegoela adierazi zuen «eta batzuek bortxakeria eta besteek prepotentziari utzi behar diote» adierazi zuen Del Valek.

Francisco Javier Tuñón



Kontu Ganbarako presidentea

Pasa den ostiralean hartu zuen kargu berria presidente gazteak, Nafarroako Parlamentuaren Mahai eta Juan Cruz Alli lehendakariaren aurrean eginiko diskurtsoarekin. Tuñonek erakunde honen garrantzia azpimarratu zuen bertan, «oinarritakoa bait da sistema demokratikorako». Bere ustez, Ganbararen benetako lana fondo publikoen gestioa «garbia eta argia» izatea da, eta Mariano Zufia bere aurrekoaren lana goraiatu zuen. «Berak —esan zuen Tuñonek— tekniko oso baliagarriak eskuratu ditu erakunde honetarako, eta zuen filosofiari esker, berezko pertsonalitatea eman dio Kontu Ganbarari». Bukaeran bertatik ateratako txostenez baliatzeko eskaera egin zion Parlamentuari. Bertan Euskal Autonomi Elkarteak Kontu Ganbarako ordezkaria izan zen, besteak

Fernando Arretxe



Pilotaria

Luzaidako mutikoa pilotari ona zela bagenekien. Baita kantxetan dena ematen zuela ere. Baina joan den asteko ostiralean Gasteizko Ogeta frontoian jokaturako partiduan, Patxi Eugi eta Inaxio Errandonearen kontra, zaletu franko eskuraturako zituen, dudarik gabe, Fernando Arretxek. Galtzaile atera arren —askotan gertatzen zaionaren antzera— etsi, aisa ez zuela etsiko erakutsi zuen lehendabiziko tantutik. Partidu osoan zehar erritmo berari eutsi zion, eta askori min ematen zion eskuetan pilotada bakoitza ikusi eta aditzeak. Arretxe bezalako pilotari asko behar dira Euskal Herrian, eta gainera ez bakarrik pilotariak, haiek erakusten bait dute garbi bakoitzak bereak irabaztearen garrantzia, inoren laguntzarik gabe. Untsa! Fernando, eta segi aintzinerari!

'El sueño del Mono Loco' ('El mono eroaren ametsa') izeneko mea izanen da ikusgai Iruñeko kael zinematokian, Lux Zine-klub antolatu duen astearen barruan, likula Antonio Perez Gomez kokaok aurkeztuko du.

IKASTAROAK

Saloi dantzak ikasteko paraden da hurrengo astelehenean Club Deportivo Navarra taldeak Jarauta 78an duen aretoan.

IKUSKIZUNAK

Espainiako Ballet Lirikoa Nafarroako Duatoren zuzendaritzapean Iruñean da otsailak 4a eta 5ean arratsaldeko zortzietatik aurrera Gai Antzokian. Aldez aurreko sarrerak salmenta Gaiarren bertan egiten goizeko 12etatik 14.00etara eta arratsaldeko 17.00etatik 20.00etara.

MUSIKA

Cesar Hualderen kontzertua izanen da heldu den astelehenean otsailak 3, Nafarroako Aurrezki Kutxa Iruñeko Amairuko Gaztelu kalean duen erakustokian. Kontzertua arratsaldeko zortzietan izanen da eta artistak Hector Villalobos, Juanquin Rodrigo, Hans Hang, Jose Manuel Fernandez eta Lio Broerenak joko ditu.

Still Bind taldeak joko du Altsas gaztetxean. Joan den astean jokoak ziren, baina bota zuen elur zela eta bertan behera utzi behar izan zuten orduan kontzertua. Gaur emanaldia gaueko bederatzietan izango da.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 90.5

Astean zehar 8.30etatik 9etara **Bertatik Bertara** Informazio saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 100.5

Egunero 12.00etatik 13.00etara **Informazio Saioa** Euskal Herria eta mundua zabala.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 88.5

Astean zehar OMn 14.45etatik 15.00etara eta FMn 14.00etatik 14.10etara... Herri Kronika.

RNE RADIO 1 OM 88.5

Astean zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkartearen irriketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.5

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagunen pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

Urtero urtero berritzen den ohiturari jarraiki, Zubieta eta Ituren arteko elkar bisitaldiak egin ziren pasa den astelehen eta asteartean. Aurreko asteburuan hasitako Leitza eta Sunbillakoei

segida emanez, horrela zabaltzen zen Nafarroan urteko eperik bitxienetakoa, herriaren ezaugarri ezkutuenak azalarazten dituen. Herrietan behiala agerian, hirietan gaurkoaren islada, denetan

ihauteria, adarjoleen gozamina, ajolabaikoen paradisia. Ondoren etorriko dira Lantz, Altsasu, Arizkun, Lesaka, Bera, Luzaide... denak desberdinak, denak bereziak.

Barren barrenetik, ihauteriak Zubietan

Zubietarrak iturendarren zain, eguerdian. Azken prestaketak kanpoan dagoen builatik aparte, bisitariengandik urrun. Ondoan, ttuntturroak, buruan paratzen duten azkena. Ioariak eta larruak dagoeneko jantzita.



JOXE



JOXE

Hisopoak eskuan, ttuntturroa buruan, ioariak gerrian, bide berriaren akaberan antzematen dituzte ondoko herriko zantantzarrak, adar eta ioarien doinua airean. Egin dituzte jada dantzak Zubietako plazan, orain elkartzea baino ez da falta.

Zubietarrak eta iturendarrak, elkarrekin, dantzan, kale goiti eta beheiti, behin eta berriro, nekagaitz. Aurten ere bete da aspaldiko ohitura, kitatu da zorra hurrengorarte.



JOXE



Amaitu dute zantantzarek, doinuek airean darraite, orain bakoitzaren ihauteria hasten da. Aharia larraz jantzitakoaren aurrean, penitentziak kate luzea zeramana. Bromak, kazkarroak, jendea begira... Ihauteriak.

JOXE



Nafarroan ardo gorria eta piperra bakarrik ez zegoela jakina zen, baina askok pentsa lezakeen baino produktu gehiago ekoizten dira horretarako dagoen eremu zabalean. Guk hiruri heldu diegu, itsu-

mustukan, Nafarroako nekazaritzari nolabaiteko 'azterketa' bitxia egitearren. Kiwia, tabakoa eta oliba. Azken biak aspaldidanik ezagunak eta herri askoren paisaia bihurtuta, lehendabizikoa berria, exotikoa. Azterketaren

emaitza, esanguratsua. Betiko produktuek al-daketa sendoa behar dute aurrera egin ahal izateko, eta desagertzeko joera garbia dute. Kiwiak etorkizun oparoa du, eta alternatiba bilaka daiteke giro aiproposeko tokietan.

Baztan-Bidasoan aurten izanen da kiwi lehendabiziko uzta

PATXI ULAIAR / IRURITA

Egun hogeitamar bat hektarea kiwi dago landatuta Nafarroa osoan, oso eremu jakin batean eta enpresa baten inguruan: Kiwi Baztan. Enpresa hau duela bost urte sortu zen, baina aurten bilduko dute lehendabiziko merkatuan duintasunez aritzeko uzta. Izan ere, Malerrekan eta Baztanen duten lurretik ehun mila kilo inguru lortuko dutelakoan daude. Iaz soilik hogeitamar mila atera zuten.

Enpresa honen historia duela bost urte hasi zen, arlo ezberdinetako jendea biltzen zuen bertako talde bat New Zealand-etik etortitako fruitu berri honek ematen zituen aukeraz jabetu zelarik.

Guzti honen atzetik, baina, historia bitxia dago, Madrilen arkitektu zegoen baztandar batekin lotuta. Hau, nonbait, rugbyzale amorratua zen, eta New Zealandeko taldearekin behin harremanetan hasi eta bururatu zitzaion Baztanen paratzeko ideia. Bururatu eta burutu, hortik gutxira lehendabiziko landareak heldu bait ziren Iruritaran.

Bi hektareakin hasi ziren, New Zealandetik ekarritako landarekin, eta ondoren mintegiak paratu zituzten beraiendako zuhaixka propioak sortzeko. Landareekin batera hango tekniko bat ekarri zuten, oraindik lanean diharduena eta arlo teknikoaz arduratzen dena. Gauzak ongi zebilzala ikusita, lur gehiago alokatu zuten, egun dituzten hogeitamar hektarea osatu arte.

Normalean, Miguel Mindegia enpresako arduradunetako batek adierazten duenez, bost urte behar dira landareak fruituak ematen hasiteko, baina zenbait arazo izan direla

eta, berandutu dira Baztango enpresaren lehendabiziko emaitzak. Duela bi urte izan zen ustekaberik handiena, landareak, akats teknikoak izan zela kausa, hormatu zitzaizkielarik.

Kiwiak arrakastaz produzitzeko hiru dira bereziki landu beharreko arloak: lurra, ura eta haizea. Lurrak ongari asko eskatzen du, baina inguruko lurra oso aproposak dira ki-

Normalean bost urte behar dira landareak fruituak ematen hasteko, baina zenbait arazo izan direla eta, berandutu egin dira Baztango enpresaren lehendabiziko emaitzak.

wiarendako. Ura ere funtsezkoa da, baina ez da sobera ureztatu behar, baizik eta zirtailuen bidez. Hau da, ureztatzerakoan, langarra fina moduko ura botatzen da landare eta lurrraren gainean, umedadea hartu bai, baina blai egin ez dadin. Horretarako dena mekanizatuta dago, sentsoreen bidez.


Haizeari ere beldur handia diote, batez ere adaxka finak hausten dituelako. Horrela, sare altuak edota makalak paratzen dituzte lursailen artean.

Ondoren, eta kontutan hartuz hektarea bakoitzak eman dezakeen produktioa dela eta —hogeitamar mila kilo inguru—, sare moduko egitura osatu behar da, pisuari eusteko. Horretarako zutoin berezietz baliatzen dira —egosiak eta berebiko trata-

mentua dutenak, hogeitamar urte irauteko—, eta ondoren, alanbrez estaltzen dute sail osoa. Alanbre hauek ere espreski egiten ditu Cantabriako enpresa batek.

Horretaz gainera, ez du zainketa berezien beharrik, adar mozketak beste guztien arboreen antzekoa bait da. Bilketa urria aldera egiten da, eskuz, eta garai aproposa asmatzeko fruituak duen azukreraren portzentaiari erreparatu behar zaio.

Orobat, eritasunik ez duela azpimarratzen dute bertan, «ia laboratoriotatik ateratako fruitua bait da kiwi». Txinan du jatorria, eta New Zealandera eraman zutenean, duela berrogeitamar urtez, azterketa franko egin zuten ahalik eta produktu osatuena lortzeko asmoz. Ondorioz, ez da ezaguna oraino fruituen gaitzarik.



Baztango kiwiak.

JOXE

«Marka eta itxura funtsezkoak dira»

P.U. / IRURITA

Urte honetan antzemango dira orain dela bost landatutako landareen emaitzak. Mindegia azaltzen duenez, «orain arte ez dugu probetxurik atera, baina landareak hementik aintzineran hasiko dira fuerte produzitzen».

Kiwi Baztanen orain arte ateratakoa batez ere Donostia aldera saldu dute. Merkatuan eragina izan ahal izateko funtsezkotzat jotzen dute kalitatezko produktua eskaintzea eta fruituak ongi sailkatuta eta itxurosoak ateratzea. Hori dela eta, Gipuzkoa eta Bizkaiko beste azientekin produktu bateratuta atera nahi dute, marka berezi batekin.

«Gure eremua Euskal Herrian dago —diosku Mindegia—, eta Gipuzkoa eta Bizkaikoekin batera hasi ginen gu ere. Guk nahi dugu denekin elkartu, marka ona izateko. Baionan ere badaude produzitzen dutenak, eta horiekin ere mintzatu gara. Izan ere,

merkatua badago, eta etorkizuna ere bai».

Markarena soilik hemengo produktua dela jakin erazteko izango litzateke, jatorrizko izendapena edo antzekorik ezin bait dute eskatu. Hain zuzen ere, Midegiak azaltzen duenez, «jatorriz hemengoa ez delako, eta horretaz landa, Euskal Herriko kiwiak ez duelako zapore edo ezaugarri berezirik. New Zealandetik etortzen denaren antzekoa da».

Merkatuan sartzeko «kiloak» behar direla azpimarratzen dute behin eta berriro Kiwi Baztanen, eta aurtengo uztan espero duten ehun mila kilokin lortuko dutelakoan daude. «Erosleek dena batera erosi nahi dute, banatu eta komertzializatzeko, eta zuregana etortzen badira eta soilik hogeitamar mila eskaintzen badiezu, alde egiten dute beste batengana».

Lehendabiziko helburua Euskal Herria izanda ere, ez dute ahazten beste herrialde handiak, baina esportatzeko orduan, New Zealandek

duen sarearekin egiten dute topo. Hala ere, konpetidoreak baino, laguntzaileak izan direla aitortu dute. «Laguntza sobera eman dute. Gainera, haiek orain ari dira produzitzen, uda delako, orduan, beti badaude horrelako tartek denendako. Italia da konpetidore nagusia, Ipar Euskal Herriak ere gurekin jokatzeko duela».

Horregatik, eta kontutan hartuz egun kontsumitzen denaren % 80tik gora kanpotik datorrela, «abantaila handia» dutela adierazi dute, orain arte inork ez bait du produzitzen».

Estatuko beste zenbait tokitan ere hasi dira landatzen, Baztango mintegitik ateratako landarekin, eta haien aholkurekin, «ez bait zegoen enpresarik New Zealandeko teknikorik zuenik».

Galizian ere horrelako saiok egin ziren, «baina frakaso handia izan zen, oso gaizki egin zirelako gauzak. Pentsa ezazu, Castellonen ere saiatu ziren sartzeko, laranjen ordez...»



Miguel Mindegia (eskuinean) Iruritan duten aziendan.

JOXE

Tabakoa: ezta erretzeko ere

P.U. / IRUÑEA

Nafarroako produkturik exotikoenetakoa —edo behintzat ezezagunenetakoa—, dudarik gabe, tabakoa dugu. Lurrak ematen dituen fruitutik, neurri handi batean, bizi den lurralde honetan beste produktuek hartzen duten eremuekin alderatuta, tabakoena oso txikia dela ezin uka, baina herri askotako ezaugarri bat izan da urte askotan zehar tabakoaren hostoak balkoi eta leihoetatik zintzilik ikustea, urri aldera. Luze gabe desagertu litekeen paisaia, hain zuzen ere.

Nafarroako produkzioa ez da oso handia, 110 bat hektarea erabiltzen bait ziren horretan 1989ko Nafarroako Gobernuaren datuen arabera, baina oso sakabanatuta dago herri frankotan, batez ere Lizarrerria eta Erriberakoak. Torres del Rio, Abaigar, Antzin, Cabredo, Uxa-nabilla, Iguzkitza, Legaria, eta Milagro dira herririk aipagarrienak, baina soilik Torres del Rion dago azpimarratzeko merezi duenazienda, hamaika hektarea duena. Beste guztiak, batzbeste, ez dira hektarea batera heltzen, eta oso urriak dira hirutako eremua hartzen dutenak. Tabakoaren zikloa otsaila aldera hasten da, orduan ereiten bait da. Landarea maiatz edo apirilaren hasieran ateratzen da, eta orduan ur asko behar du, kimuak kendu behar bait zaizkie. Urrian mozten da, eskuko guraiziez, eta ondoren lehor-


tzen uzten da, zintzilik, lau landaretako eskualdian. Herri hauetako paisaiarik ezezagunenetakoa antzeman daiteke garai honetan, balkoi gehienetan hostoak zintzilik eta zoko guztietan usain gogor eta trin-koa, be-rezia. Zikloaren amaiera ere, otsaila aldera

izaten da, hostoak fardeletan sartzen direnean, baina lehendabiziz etxeko patio eta sotoetan uzten dira ontzen, plastikoz estalita, fermenta ez dadin. Eroslea, lehen Estatua bera zen, tabakoaren monopolioa zuelarik, baina orain biltzen duena CERPASA enpresa da. Gehienetan, eta tabakoaren kalitatea oso ona ez izanda, Farias izeneko tabakoa egiteko aprobetxatzen da, eta herri bakoitzean etxeek kontratu propioa dute enpresarekin, kopuru zehatza emateko. Garai hobekak, baino izan dira, eta Abaigarren, kasu,

ez dakite hau izango ote den landatzen duten azken urtea «nahiz eta bizitza osoan tabakoa ezagutu izan herrian» bertako Zabal etxekoandreak adierazten duenez.

Izan ere, oso prezio eskasean ordaintzen ari da azken urteotan —400 eta 100 pezeta bitartean kiloko, mota ezberdinen arabera—, «eta lan asko ematen du, urte osoaren buruan haren gainean egon beharra dagoelako. Otsailean hasi, ereiten, eta otsailean amaitu, ordura arte ez bait dago prest kooperatibara eramateko».

Orobat, azken urteak ez dira oso onak izan eguraldiari dagokionez, oso lehorra behar bait du izan, eta hori somatu da tabakoaren kalitatean. Prezioek, jakina, behera egin dute. Gainera, ongari eta ura asko behar du garai jakinetan, eta bertako herrietan zainzuri eta patatak nagusitu direlako. «Horiek, behintzat, diru apurra ematen dute, eta gainera etxean aprobetxa dezakegu. Tabakoa, ordea, ezin da ezta erre ere egin, oso gogorra delako hemen landatzen dena».



mintzoak

Jelkideen atrizioa

● Tuterako katedraleko atarian Azken Iudizioko eskulturak ikaragarriak dira erabat. Ezker aldeko arkiboltek *Justuen egunean* bekatari garen guztiok jasanen ditugun bortxakeria eta zigorrak, zehaztasun ororekin adierazten dizkigute.

Elizak, betidanik jendea beldurtarazteko joera izan du. Hau ongi ikasi genuen txikiak ginelarik *salbamendurako* bideak erakusten zizkigutenean. Jaungoikoaren barkamena eskuratzeko bi bide omen ziren. Bata, *Kontrizioarena*. Honen bitartez, bekatariak bere kabuz beren erruez damutzen ziren. Bertzea *Atrizioarena* zen. Honakoan berriz, Erlijioaren ikonografia izugarriak eta apezten predikek barneratzen zizuten Infernuarekiko beldurrak gure erruez damutzera eraman behar gintuen.

Dirudienez, zenbait buruzagi politikoen eritziak entzunda, Elizako eremuetatik kanpo ere, jokatze hauek baliogarriak izan daitezke. Proiektu politiko batekiko jendearen oneritzia lortzeko, sinisgarritasunaren bideak oztopoz beterik aurkitzen ba dira, izua eta ezbaia argudio zabaltzea egokia izaten ahal da.

Gisa honetako adibide garbia, joan den astean, Iruñean, EAJko Napar Buru Batzar berriaren aurkezpena zela eta, egindako prentsaurrekoa dugu. Buruzagi jelkideek plazaratutako adierazpenen arabera, Nafarroari, lurralde bakarrekiko komunitate izateak, bideragarritasunik eza dakarkio eta honen ondorioz geldiezinazko porrota jasanen du. Ekonomikoki irtenbiderik ez duenez, nahitahi ez Euskal Autonomi Elkartera joan beharko du.

Ontsa ba! Hau horrela balitz, eskualde horretan egunero, aber-tzale eta euskaltzale anitzek garatzen dituzten lanak soberan leudeke. Lasai egon gaitetzke. Nafarroa, sagar heldu bat bezala, Euskadiko saskian eroriko da, ekonomia-aren segak lagunduta. Ez du merezi euskal militantziarik egitea, ez alderdian, ezta bertze mo-

tetako erakunde zein taldeetan ere. Katastrofismo ekonomizista horrek, gu nekatu eta konturatu gabe, Euskadiratuko gaituelako.

Nafarroan, EAJ bezalako alderdi olinpiko eta *gadianatarak*, lau urtetik behin, hori bai hauteskuntetako parafernaliarekin agertzen dena, honako ikuspuntu baikorra baldin badu, zertan gabilza hemen gaudenok, kontabilitate zerbaki gorriak aski ba dira bertze nafarrei *Damas-koko bidea* erakusteko?



Nafarroa eta bertze gainontzeko lurralde euskaldunen arteko batasunaren auzian ez da gauza berria argudio ekonomikoak erabiltzea 1931ko estatutuaren eztabaidetatik hasita, Frankismoaren azken garaian zabaltzen zen propaganda politikoraino honelako arrazoinamenduak kaleratu izan dira. Berria dena da, *Azkoitiko Terminator-3* eta bere kide nafarrek erabiltzen duten doinu apokaliptiko bezain harroa. Zoritxarrez, hau da Nabarrismoari egin diezaioketen mesederik haundiena. Egia ba da. Nafarroako bilakaera, ez bakarrik ekonomikoa, baita politiko eta kulturala ere, bertze lurralde euskaldunekin bat eginik, askoz aise eta osatua goa izan daitekeela, oso era desberdin batez erakutsi eta frogatu behar dugu.

Jelkide hauek duten baldareriak, gure harridura sortarazteaz gain, argudioi eta mamu nabarrista guztiak ormitzen ditu. Bide okerretik doaz EAJko aintzindariak, Nafarroan euskal sentimendua; honako diskurtso ideologikoarekin, sendotzen dela pentsatzen ba dute. Eta alderdi bezala, bertze porrot bat pairatzeko eskubidea duten arren, hobe lukete bere buruari galde egitea, ea horrelako adierazpenak ez diren Nafarroan lan egiten dutenen abertzaleentzat *gurpiletan paratzen diren egurrak*.

Aurtengo produkzioa bikaina izan arren, olibondoak murriztuko dira

P.U. / IRUÑEA

Nafarroan 2.866 hektarea zeuden olibondoekin landatuta 1989an, Nafarroako Gobernuaren datuen arabera. Eremu hau aspaldian izan den txikienetakoa zen, 1981-1985eko epeko batezbesteko kopurua baino mila hektarea gutxiago, alegia.

Hurrengo urteetarako ere ez dute joera honen aldaketarik iragarri, aurtengo uzta benetan izugarria izan bada ere. Izan ere, eta urteek agintzen dituzten ohiuren poderioz, oraindik orain olibondoak landu dira leku askotan, baina askorentzat ez dute dirurik ematen.

Nafarroako produkzioa Lizarrerria eta Erriberan kokatzen da bere-

ziki, eta baita Zangozerrian ere. Aziendak, baina, oso banatuta daude, eta arraroak dira hiru hektareata hiltzen direnak. Orobat, bost bat dira Nafarroa osoan bost hektareakoak baino handiagoak.

Bi oliba mota izaten dira, kontsumorako erabiltzen dena eta olio ateratzeko. Azken hau da ustiapen gehienetan dagoena, eta hortik ateratakoaren gehiena etxeetan bertan kontsumitzen da. Produkzioa oso handia bada, aurtun bezala, batzuek etxeetan bertan saltzen dute, eta azienda handien jabeek beste enpresen eskutuan paratzen dute produkzioa, kopuru handietan saltzeko.

Normalean, 25 litro olio ateratzen da ehun kilo olibako, baina aurtun kopurua aise gaindi daiteke.

Oliba bildu ondoren, xahutzerari ekiten diote, eta prozesu honek ia hilabete irauten du, gabonetan hasten bait da. Xahutzea tokiz tokiko kooperatibetan dauden tresnen bidez egiten da, eta ondoren, ateratako litroak ekoizleen artean banatzen dira, emandako kopuruen arabera.

Zentronikok, kasu, betidanik izan du oliba lantzeko izugarriko tradizioa, eta orain dela gutxi arte herri osoa olibondo inguraturik zegoen. Hala ere, emaitza irregularrek, eta behar dituzten zainketa bereziek ez dute inondik inora kopurua ugaltu.

Aurtun, baina, 250.000 kilo oliba lortu dira bertan dauden 89 hektareetako olibondoetatik, eta honek 62.500 litro olio inguru emango du. Iaz soilik 16.000 kilo bildu ziren.

Gazteendako Zokoa

Hipokresiaren itzala

NEREA PEREZ

Kaletik nindoan korrika eta presaka, estutxean neramatzen boligrafoak soinu jasanezin bat ateratzen zuten korrika egiten nuen bakoitzean. Goizeko zortzi terdiak ziren eta unibertsitatea oraindik urruti ikusten nuen. Berandu nenbilen, ia pentsatzen ari nintzen ze nolako errieta egin behar zidan praktiketako irakasleak, baina ez zitzaidan inporta, behintzat Josu ikusi nuen bitartean.

Atzo gauean goiz joan nintzen etxera aitona gaixo zegoelako, eta Josurekin hitzegiteko astirik ez nuen izan. Nere amak esaten dit hemeretzi urte ditudala eta oraindik oilaloka moduan nabilela. Sei urte daramatza gauza bera esaten, eta nik beti esaten diot: «Pasako zait».

Ondo konpontzen gara ama eta biok, nik dena kontatzen diot eta oso ongi ulertzen nau, nahiz eta batzutan biak burugorriak jarri eta azkenean gaizki bukatu.

Bidean nindoala Marianarekin elkartu nintzen. Nere adinekoa da, eta lehen koadrila berberan ateratzen ginen baina koadrilakoek ez zuten pairatzen eta koadrilatik bota egin zuten. Ez zen gu bezalakoa, ez zuen asko hitzegiten eta zerbait erabaki behar genuenean berak ez zuen inoiz ahoa irekitzen. Nere lagunek esaten zuten oso gelbera zela eta horregatik naharotan marginatzen zuten.

Baina nik, ordea, ez nuen beraiek bezala pentsatzen, nere ustez gu be-



zalako neska zen. Nere ustez, ezin zen pertsona bat horrela meziprezatu guztiok berdinak ginelako, batzuk besteak baino irekiagoak eta behar bada berritsuagoak, baina denak berdinak. Nere ustez Marianari ez geniola eman paradarik berak irekitzeko eta konfidantza emateko. Nik inpresio ona neukan neska honetaz, eta berarekin hitz egiten nengoenean gustora sentitzen nintzen, baita bera ere; aurpegian isladatzen zitzaion poztasun keinua, ikusten zen ez ziz-

kiola inori bere arazoak kontatzen eta norbaitekin hitz egiteko gogoak zituela.

Bainan ez dakit zer gertatzen zitzaidan, gero nere koadrilarekin elkartzerakoan, Marianataz gaizki, oso gaizki hitzegiten zuten eta far egiten zidaten. Nik ere far egiten nuen eta arazoia ematen nien, «txepela da, sosa! uff» esaten nuen, momentu horretan ateratzen zitzaidan, hori esan behar nuen bestela akabo! Koadrilatik botako ninduten eta mundu za-

kar honetan beste pertsona baztertu bat izango nintzateke eta horri beldur handia nion, baina bitartean ez zitzaidan inporta hipokrita bat izatea nahiz eta nere postua koadrilan tinko mantendu.

Askotan pentsatzen nuen honetaz, ezin diozu inori sinistu, inoren konfidantza onartu bestela bapatean ostiko bat eman ahal dizute ipurdi erdixean. Baina gogorra da guk beraiek bezala egiten dugula eta konturatzen garela baina ez dugula ezer egiten horrekin mozteko. Hau askotan komentatzen nion Caro, amari, baina beti berbera erantzuten zidan: «begira alaba, zeharo gizarte hipokritan bizi gara». Eta ez zidan deus gehiagorik esaten, horrekin konforme egon behar nintzen, baina ez nengoan. Batzuk hipokrita izateaz harrotzen dira, ni gutxienez gaizki gelditzen naiz.

Unibertsitaterantz heldu nintzen, ez nuen gogorik sartzeko bainan sartu nintzen, praktikazko irakasleak ni ikusterakoan esan zuten: asko sentitzen dut maitea baina ordu laurden bat beranduago iritsi zara, horregatik kanpoan geldituko zara! Ni aho zabalik gelditu nintzen atea nere sudur puntan ixten zuten bitartean. Bapatean barrutikan atera zitzaidan oihi bat bota nuen: «A ze zakarra den bizitza hau!!!». Pasiloetan zeuden irakasleak atzeruntz begiratu zuten harridura aurpegiarekin baina neri bost axola, liburuak atera nituen eta lurrean eseri nintzen ikastera.

Galeperra

Coturnix Coturnix

Oso ugaria Nafarroan. Bikote bakarrek. Bakarrik ekiten dio migrazeari.



Ama paregabea

Dudarik gabe, ehiztarien helbururik handienetarikoa, ez bait da txantxetako platerean duen estamazioa. Migratzaile honek bakarrik ekiten dio urteko bidaiari, baina badaian sailak osatzen ditu bere antzekoekin.

Oso oihi ezaguna dauka, eta badarra da lurrean, ikusmena eta entzumena oso garatua izan arren. Nor malean, ezkutuan ematen du eguzkia osoa, eta arratsean ateratzen da jantzi bila edota hegan egitera.

Bere elikagaiak bikorrak, ostoa eta intsektuak izaten dira, eta askotan harri txikiak jaten ditu liseriket errazteko. Bikote bakarrek, arrajeloskorra izaten ohi da. Uda hastetakoan paratzen du emeak txofrakia garisoroan egindako zulo batean, eta bertan zazpi eta hamazortzi arraultz bitartean erruten ohi ditu.

Hogei egun pasa ondoren, kumeak ateratzen dira arraultzetik, eta oso azkar hazten dira. Aipatzekoa da emeak duen amatasuna, frankota hiltzeraino heltzen bait da bere kumeak bakarrik ez uzteagatik.

Nafarroa osoan aurki daiteke, baina oso aldakorra da kopurua, ehiztariak eragindako presioagatik. Egoera aproposa den urtean, azkar asko berreskuratzen ditu galdutako kopuruak.

NON ZER

Ikastaroak

□ IPESek zenbait ikastaro antolatuta ditu otsailaren hasierarako, mota eta gai ezberdinei buruzkoak. Mundua ikuspuntu historikotik, gorputz espresioa, sexualitatea, HIESa, fantasia eta ametsak, eta beste makina bat gai jorratuko dira bertan. Informazioa: 22 59 91 telefonoan. San Miguel, 18. Iruñea

□ Hata yoga, yoga bikoteetan, gimnasia intuitiboa, dantza sare, eta beste antzeko ikastaroak eskaintzen ditu Shan-Gri-Le taldeak Gredoseko mendizerran (Madril) duen atseden etxean. Ikastaroak otsailak 7 eta 9

bitartean izanen dira. Tf. 908/11 21 99

□ Hurrengo ikasturtean EEBBetan igarotzeko aukera eskaintzen dizu Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Zerbitzuen administrazioak. 15-18 urte bitartekoendako, BBB eta UBI egiteko bertako familien etxeetan. Informazioa gehiago nahi izanez gero, ondorengo helbidera jo: David Griffiths. Tf. 17 37 73

Lana

□ Tafallako Udalak administrazioan ofizial batendako lanpostua betetzeko deialdia egin du, oposizio-lehiaketan. Lanpostua kontabi-

litate arloan lan egiteko da. Orobat, beste hiru administrari laguntzaile behar ditu, egun osoko lana betetzeko, eta erregimen finkoan. Informazioa Iruñeko Gazteriaren Etxean.

Lehiaketak

□ Bilboko Rock-Pop Lehiaketarako deialdia egin du bertako udaleko Kultura Zerbitzuak. Lanak taldeek beraiek egindakoak beharko dute izan eta otsailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira. Halaber, taldeek ezin dute inolako kontratua izan disketxeren batekin. Eskerak hurrengo helbidera zuzendu behar dira: Gazte eta Kirol Saila. Bilboko Udal. Er-

nesto Eskoreta Plaza. 48.007 Bilbo.

□ Iruñeko Udalak ipuin eta narrazioen lehiaketarako deialdia egin du. Lanak martxoaren 30a baino lehen aurkeztu behar dira Zapateria kaleko Hiritar Eragintzako bulegoan.

□ Espainiako Orkestra Sinfonikoak kamarako orkestrarako sarirako deialdia egin du, konposaketa arloan. Saria milioi terdiko pezetakoa izanen da, eta otsailaren 28a baino lehen bidali behar dira eskaerak ondorengo helbidera. Orquesta Nacional de España, C.P. de Vergara, 14-6. 28.002. Madril. Tf. n 491/337 02 70 / 71.

KAZKARROAN

Txirrindularitza

Egunero entrenatzera atera beharraz bertsoak, Arbizuko bertso eskolakoak.

Egun hauetan hotz fina belarrietan hau mina entrenatzera atera eta ibili ezina egin behar ahalegina hau eguraldi zikina hobe genuke neguan baina udaran bagina

Erruedak jira ta jira eta ni haiei begira zer demonio egingo dugu nekatzen badira igo beharra mendira eta ondoren herrira sufriarazi egin da halere nere lagun dira

Oihana Olaberria

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztu joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren Imotzen jasotako esaera zahar bat ageriko zaizu

1. Arerio
2. Sudurreko jarioa
3. Kolore mota
4. Kasu!
5. Ez malgu

B	7	D	8	A	3	D	4	B	1		
A	1	B	11	A	9	D	2	D	6		
D	5	A	10	B	4	B	10	D	9		
B	5	B	3	D	10	A	6	A	2	D	7
B	8	A	4	D	3	A	7	A	8	B	2

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11
A											
B											
D											

Zaharrak berri

Idie adarretik galtzen da eskribaue plumetik, eta gizonezkoak firmetik

Oskotz (Imotz)

Non da besta, non da beille, hau da nere kireille

Besta eta erromeriak dituen gusutokoak errana.

Ultzama

—Hi, noiz jaiotzen?
—Ez nauk oso ongi gogoratzen baina larunbaten bat edo igandaren bat zela, seguru.
—Eta nola dakik hori?
—Egun hartan eskolara joan nintzelako.

Bizi Bizian

Baztango Udalak urtebeteko baimena eman berri dio Xorroxin Irratiari, irratiaioen truke Nafarroako Gobernutik jasotako dirua bideratzeko. Urtebeteko arnas

freskoa irradi euskaldunarendako, baina asmoak haruntzago doaz. Izan ere, Baztango Udalak eskatuta dauka udal irratirako baimena, eta Xorroxini uztea da asmoa, baina ez daude oso garbi

oraindik kontratuaren baldintzak. Irratiak hamar urterako nahi du eta baldintzarik gabe, orain arte egin duenari segida emateko. Udalak ez omen ditu gauzak hain garbi.

Xorroxinen saiorik garrantzitsuena

PATXI ULAIAR / IRURITA

Nafarroako Gobernuak irratiko FM frekuentzien banaketari buruzko erabakia hartzerakoan une horretan Nafarroan zeuden bi irradi euskaldunak —Baztango Xorroxin eta Iruñerriko Euskalerrria— kanpoan utzi zituen. Egun, baina, eta urte bat t'ardi pasatxo, biek airean darraite.

Xorroxinek, erabakiaren ondotik, beste bideak bilatzeari ekin zion, bere helburua lortzeko. hau da. lizentzia eskuratzeko, eta aukerak behin aztertuta, udalek emisora propioa edukitzeko duten aukerari eritzi zion komenigarriena.

Horretarako solasean hasi zen Udalarekin, eta hasieran nahiko motela joan bazen ere, azken hantekundeetan izan zen udal gobernuaren aldaketa-ekin prozesua azkartu egin zen.

Horrela, eta Gobernu sozialistekin, Baztango Udalak udal irratia izateko eskaera egin zuen modu ofizialean. Emaizta antzua izan da, bistan denez, gaur arte ez bait da inolako erantzunik jaso. Hain zuzen ere, Sanz Nafarroako lehendakariordeak Xorroxinekin berriki izandako bileran horren berri ez zuela adierazi zien. Hori dela eta, eskaera berriro egitea eskatuko dio Xorroxinek Baztango

Udalari. Hala ere, eta lizentzia helitzen den bitartean, Xorroxini urtebeteko baimena ematea onartu zuen aho batez Baztango Udalak joan den abenduan egin batzarrean, euskarazko saioak egiteagatik Nafarroako Gobernuak eman zuen dirua bideratzeko.

Irratiak duen hamar urteko historia laburrean, berebiziko garrantzia dauka une honek, kolokan bait dago, oraindik, udal irratiairen baimena lortuko duen ala ez.

Xorroxinekoek hamar urterako nahi dute, baina arazoa garbi dago: Udalarena izanda, bere esku leudeke erabakiak eta irratiairen gestio bera eta irratikoek ez dute horrelakorik onartzen. «Guk orain arte izan ditugun irizpideei jarraitu nahi diegu, inolako baldintzarik gabe —azaldu dute— udal irratia normal bat bada, dena Udalaren esku geldituko bait litzateke».

Baztango Udalaren barruan ere irizpidea ez dago sobera garbi, eta taldeak Xorroxini ematearen aldekoak badira ere —Union Baztanesa izan ezik, hasieran—, zenbait baldintza paratu nahi dute, gestioari dago-kionez. Malerreka eta Bortzirietako udaletan, ordea, guztiz aldeko jarrera dago irratiaiekiko, eta honen asmoa da mankomunitate bat sortzea udal



Mikrofonoaren aurreko lanaz aparte, herriz herriko kolaboratzaileak ditu irratiaik.

JOXE

guztiekin, lizentzia lortu ahal izateko.

Nolanahi ere, itxaropentsu dira Iruiritako etxe zaharrean, «badakigulako sustraituta gaudela Baztanen, eta indar horrekin etorriko da konponbidea». Horrela, eta egitura sendotzeko, 500 watioko emisora berri bat eskuratu nahi dute laister. Orain duten 100 watiokoarekin duela bi hilabete zabaldu dituzte emisioak Bortzirietaraino, eta horretarako lekuz aldatu dute errepetidorea lehen

zegoen Ameztitik Legatera. Hala ere, heldu nahi duten leku guztietara heltzeko emisorearen indarra oraindik ez da aski, nonbait, «ez bait da guztiz garbi aditzen leku guztietan, eta zenbait hutsune daude hor hermenka: Urdazubi, Zugarramurdi, eta beste tokiak, esate baterako».

Orobat, publizitatea lortzeko ahaleginetan hasteko asmoa dute, nahiz eta oraindik horretan buru belarri sartu ez diren. «Pertsona bat behar ginuke horretarako propio, eta

oraindik ez gara horrekin hasi. Hala ere, ia bilatu gabe, publizitate franko dugu, adibidez, eguerdiko saioetan. Seguru gaude bilatuz gero arras ongi joanen zela».

Udalarekin lortu nahi duten hitzarmenaren barruan ez dago aurrikusita dirulaguntzen gaia, baina aukera ez dute baztertzen. «Gure ustez, zerbitzu sozial bat betetzen dugu, eta udalek beharrezkoa jotzen badute dirulaguntzak ematea, beste zenbait ekitaldiei ematen dieten bezalaxe...»

«Irrati honek badu etorkizuna»

P.U. / IRURITA

«Dudarik gabe!» erantzuten dute ea Baztango irratia den galdetzen zaienean, eta asmoa dute Malerreka eta Bortzirietakoa ere izatea. «Malerrekan ere oso sendo gaude eta Bortzirietan duela bi hilabete hasi gara, baina pixkanaka pixkanaka...»

Egun, goizeko zazpi t'erdietan hasten dira emankizunak, eta arratsaldeko ordubiak arte luzatzen dira, mota guztietako gaiakin: magazineak, informatiboak, lehiaketak, musika... Ondoren, arratsaldeko zazpitan gazteendako saioa izaten da, eta tartean musika. Hain zuzen ere, gazteen arloa bereganatu nahi dute berriro, hamar urte pasata, onartzen dutenez, «ez bait dugu gauza handirik lortu».

Hasierak oso bestelakoak izan ziren, irratia libreen gisakoak. Bi orduetan jende helduendako saioak izaten ziren, eta ondoren, nahi zuenari uzten zioten emisora. Horrekin batera

ere, «eta sosak ateratzeko», kontzertu franko antolatu zuten, eta beraiei esker entzun eta ikusi ahal izan ziren lehendabiziz Baztanen Barricada, Hertzainak, Itoiz eta antzeko motako taldeak.

«Honek ospe bikoitza eman zigun —azaldu dute—, hurrengo egunean, askotan, jubilatueendako festak ospatzen genituelako, trikitixa eta bertsolariekin».

Horrekin batera zinema saioak antolatzeari ere ekin zioten, eta hiru negutan, beraiek paratu zituzten Baztanen ikusi ziren pelikula bakarrak. «Batzutan irabaziz, bertzetan galduz, hortik ateratzen ginuen sosak urte osorako».

Ondoren, baina, helduen gaiak ikutzera eta irratia 'formala' egitera bideratu ziren ahaleginak, eta gazteen kontuak nolabait bazterrean gelditu zirela aitortu dute. «Helduen gaiak sartzeari nahita hartutako erabakia izan zen, non bizi ginen eta zer nolako entzulegoa irabazi nahi ge-

nuen garbi planteatu genuelako».

Hori ederki asko somatu zen Gobernuaren erabakia ezagututa Elizondon egin zen manifestazioan, «mota guztietako jendea agertu bait zen, gaztetik hasita, heldu eta zaharrek, asko eta asko horrelako kontuetan sekulan aritu ez izana. Gurendako ere ustekabe polita izan zen».

Berriro gazteen eremua berreskuratu nahi dutela eta, ekin diote arratsaldeko saioei, eta hasieran lortu zuten lotura horri heldu nahian dabilta. Hala ere, irratia nahi izan duen orori zabaldua egon dela diote «eta minoritario guztiek lekua izan dute. Horri atxiki diogu».

Zortzi orduko emankizunak eman beharrak irratia «freskotasuna» kendu diola aitortu dute, «buruhauste franko etortzen bait da beste alde askotatik». Hala ere, baikortasuna somatzen zaie, zakukada, 23.000 pertsonako entzulegoak ematen duen segurtasunarekin bizkarrean: «Irrati honek badu etorkizuna».



Iruiritako etxe zaharreko balkoian.

JOXE

Mateo Garraldaeskubaloijokalaria

«Partidu zailetan, nere erara jokatzea dut gustoko»

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑA

EGUNKARIA.— Zer nolako inpresioa geratzen da txapelketa batean partidu bakarria galdu eta hirugarrena gelditzean?

MATEO GARRALDA.— Horrelakoak askotan gertatzen dira txapelketetan, batzutan bi partidutan galdu eta azkenean bigarrena gelditzea ere gelditu izan direlako. Horrela, partidu bakar batean galdu eta hirugarrena izatea ez da hain arraroa. Gainera, Jugoslaviaren aurka oso gaizki jokatu genuen azken hiru minututan eta horrela ezinezkoa da irabaztea.

EGUNKARIA.— Eta zer gertatu zen azken hiru minutu horietan?

GARRALDA.— Espainia ez da baloia kontrolatzen dakien taldea, askotan erasora jotzen bait du segituan, oso joku azkarrean. Jugoslaviak, ordea, ederki menderatzen du horrelako jokua, oso lasaiak dira baloia eskuetan dutela. Bi minutu egon daitezke lasai asko jaurtiketa egin gabe eta ez diete pasiboa adieraziko. Honekin esan nahi dut talde bakoitzak bere jokua daukala. Guk egindako jokua-gatik aurretik irabaz genezakeen partidua, baina oso markagailu parekatuta lortu genuen azkenean, eta horrela oso zaila da Jugoslavia bezalako taldea menderatzea.

EGUNKARIA.— Askotan aipatu da, ordea, Espainiako taldeak ez dakiela horrelako mementuak gaintzen, psikologikoki gai ez delako.

GARRALDA.— Gaur egun hori ez da arazoa. Hortaz hitzegiten dutenak lehen zegoen beste taldeaz ari dira, ez oraingoaz. Izan ere, talde osoa oso gazte zela, askorendako lehenbiziko konpromezu garrantzitsua bait zen, bozgarrenak izan ginen Txekoslovakiako Mundialean, eta Granollers jokatu genuen olinpiaden aurreko torneoan, bigarrenak. Horregatik, arazo psikologikoaz ezin da oraingo selekzioarekin hitzegiti.

EGUNKARIA.— Zein izan da ikusi duzun talderik hobereena, eta zeintzuk izango dira Espainiako areriorik garrantzitsuenak Olinpiadetan?

GARRALDA.— Oso zaila egiten zait hobereena zein izan den esatea, baina garbi dago EIK, Suedia eta Jugoslavia izan direla hobereenak. Hiruak oso onak dira eta joku bikaina egin dute Munduko Kopan. Eta dudarik gabe, horiek izanen dira gure arerioak, baina bereziki Suedia eta EIK.

Aurtengo arrakastaren jatorria nere jokuak berak izan duen eboluzioa izan da. Gero eta hobeto somatu dut nere burua eta jokua, eta orain, aurrera egiteko, konfindatza hartzea baino ez da behar».

Alemania ere oso talde ona izanen da, baina Jugoslavia, nere ustez, errez mendera dezakegu, guk dakigun bezala jokatuz gero.

EGUNKARIA.— Eta nola azalduko zenuke zure jokuak aurrean izan duen hobetze izugarria? Zerk izan du garrantzi handiagoa: talde aldaketak ala zure eboluzioak berak?

GARRALDA.— Nere ustez azken hau izan da arrakastaren jatorria, hau da, nere jokuak berak izan duen eboluzioa. Gero eta hobeki somatu dut nere burua eta nere jokua, eta orain, konfidantza hartzea baino ez da behar.

EGUNKARIA.— Eta eragina badu arrakasta honetan taldean eta selekzioan entrenatzaile bera izateak?

GARRALDA.— Ez, taldean oso gauza

Amaitu berri den eskubaloijokari Munduko Kopan, Mateo Garralda burlatarra izan dugu protagonistetariko bat. Hegalekoak partehartze zuzena izan du Espainiako taldearen arrakastan —hirugarrena, partidu bakar bat galduta—, eta adituen

ustetan jokalaririk hobereenetakoa izan da. 22 urtekin egun Atletico Madrilen dabilen mutiko hau handien artean handiena izan daitekeela diote, eta euskal eskubaloijari pasatako garaia gogorarazi dizkio. Izan ere, horrelako izarrak ez dira egunero topatzen.



Lehen Cacaolaten ibili zen, baina Atletico de Madrilen jokatzen du egun Garraldak. J. CALLEJA

zehatzak lantzen dira, jokaldiak, eskemak, eta abar. Selekzioan, ordea, jokalaria guztiak koordinatu eta elkartu behar dira, eta ideiak askoz orokorrak dira. Horregatik, bi lanek ez dute zerikusirik elkarrekin.

EGUNKARIA.— Eta zertan eragin du zure jokua Granollersetik Atletico pasatzeak?

GARRALDA.— Talde guztietan fun-

tsekoena entrenatzailea da. Adibidez, Granollers, Josep Blanchartekin, asko lantzen genituen erasoan egiten genituen mugimendu eta eskema guztiak, eta Madrilen askatasun handiagoa dugu gure erara jokatzeke.

EGUNKARIA.— Eta zu zer eskemarekin aritzen zara gustorago?

GARRALDA.— Jokua eta partiduen

arabera. Askotan, partidu zailetan, nere erara jokatzea dut gustoko, baina berrogei minututan hor zaudela, askotan ideiak lausotzen dira, eta beharrezkoa da nolabaiteko eskemak aurretik eginak izatea, zure jokua zer-baitetan gauzatzeko.

EGUNKARIA.— Espainiako liga txapelketaren lehenbiziko fasean lau fabori-toak —Barcelona, Teka, Bidasoa eta Atletico Madrid— heldu zarete aurrean. Horien artean izango da titulua, edo uste-kaberik izan daiteke?

GARRALDA.— Lau horien artean Granollers ere sartuko nuke nik, baina horretaz aparte ez da ustekaberik izanen, ez. Gu —Atletico Madrid— nahiko irregular aritu gara, hamabi partidutan ezin izan bait dugu lehenbiziko seikote bera ere errepikatu, eta gainera ez dugu lehenbiziko fase hau bete betean prestatu, garrantzitsuena sailkapena lortzea zelako. Hala ere, bigarrenaren gure benetako maila erakutsiko dugu.

Barcelonak oso talde ona dauka aurrean, urtero bezala, eta fabarito nagusiak dira, nere ustez. Bidasoak de-xente somatuko du Olallaren lesioa, funtsezko jokalaria bait zen. Gainera pare bat partidutan ezin izanen dute Wenta eta Jonansonekin jokatu, eta hor galtzen badute somatuko dute ligaren amaieran. Teka bete betean dago, baina azken mementutan huts egin izan ohi du.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

